AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1300

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Eneko Oregi Goñi jauna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskarako zuzendariorde izendatzeko dena.

Aztertuta geratu da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez (2013ko otsailaren 4ko EHAA, 24. zk.) argitaratutako deialdia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskarako zuzendariordearen postua betetzekoa.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eskainitako lanpostuan jarduteko izangaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, eta haien ezaugarri profesionalak curriculum vitae-an jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkezturiko agiriak aztertuta, Eneko Oregi Goñi jauna eskainitako posturako egokia dela eta postu horretan jarduteko behar besteko gaitasuna duela iritzi da.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eneko Oregi Goñi jauna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskarako zuzendariorde izendatzea (512006 kodea, 1. dotazioa).

Bigarrena.– Izendapenak 2013ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, EHAAn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 27a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.